



Txileko ingurumen- merkatuaren analisia



LABURPEN

EXEKUTIBOA

Txile dugu Euskadiko esportazio gehien jasotzen dituen Latinoamerikako merkatuetako bat, bi herrialdeen arteko jarduera komertziala sustatzen lagundu duen tradizio historiko-kultural baten ondorioz. Ingurumen arloari dagokionez, eta kontuan izanik Latinoamerika dela sektore horretako enpresek nabarmentzen duten aukera-merkatuetako bat, eskualde osoko ingurumen-araudi aurreratuenetako bat dauka Txilek.

Azterlan honen bidez zehaztu nahi dira Txileko ingurumen-merkatuaren ezaugarriak eta tamaina eta, horrekin batera, identifikatu nahi da zeintzuk diren Euskadiko ingurumen arloa osatzen duten mota desberdinetako agentei aplikatzeko moduko balizko aukera-ildoak.

Ingurumen-sektorea aztertzeko kontuan hartu dira sei balio-kate garrantzitsuenak, hauek hain zuzen: *Uraren ziklo integrala, Airearen kalitatea (airea eta kutsadura), Hondakinak, Lurzoru kutsatuak, Ekosistemak eta Fabrikazio ekoeraginkorra eta ekodiseinua.*

Merkatu-balioaren ikuspegitik, Txileko merkatuak 7.000 milioi dolarreko langa gainditu zuen 2020an, hirugarren postuan kokatu zelarik Latinoamerikako ingurumen arloko merkatuan. 2010-2020 urteen artean % 8ko hazkunde-tasa metatua izan zuen, eta hor ikusten da oso dinamikoa dela eta ingurumen-merkatua hazten ari dela.

Katei dagokionez, lehenetasuna eman zaie merkatuan intzidentzia handiena dutenei eta, hortaz, enpresentzat aukera interesgarri gehien eskaintzen dituztenei.

Txileren kasuan, eta kontuan harturik Txilek bizi duen krisi hidriko larria, **Uraren ziklo integralaren** balio-katea da garrantzitsuenetako bat, eta sektore inportatzailea da (inportazio guztien % 46). Bigarren balio-kate garrantzitsua **Hondakinen kudeaketarena** litzateke. Badira beste balio-kate batzuk ere, hala nola Lurzoru kutsatuak eta Airearen kalitatea, premia teknologikoak dituztenak Txileko arazo larriak konpontzeko.



Txileko ingurumen arloko legeriak – eskualdeko aurreratuenetako bat– ingurumen arloko erakundeen berregituraketa gauzatzen du eta Ingurumenaren Ebaluaziorako Zerbitzu bat sortzen du. Txiletarrak **inplikatuago daude ingurumen arloko gaitetan**, eta azken urteotan hainbat mobilizazio bultzatu dira ingurumen-eskubideen alde, zeintzuk etengabe urratzen baitira **meatzaritza sektoreak eta manufaktura industriak** Txilen duten pisu ekonomikoa dela medio.

Sektorean izan diren aurrerapenak gorabehera, oraindik badira premia oso larriak, batez ere **baliabide hidriko urrien optimizazio eta kudeaketari dagokionez, eta hondakinen birziklapen eta balorizazio arloan (birziklapen tasa % 4koa da gaur egun)**. Bereziki larriak dira meatzaritza sektoreak sortzen dituen **hondakin pneumatikoen** kudeaketa arazoak, eta **obra-hondakinen kudeaketa** arazoak, kasu bietan bai tratamenduari eta bai birbalorizazioari dagokionez. **Meatzaritzak** indar gehien daukan eskualdeetan **lurzoruen % 20 kutsatuta daude**, eta airearen kalitatea ere arazo larria da, batez ere herrialdeko **“Sakrifizio-eremu”** direlakoetan.

Arlo politikoan, eta ingurumenari dagokionez, Gabriel Boric presidenteak bere gobernu-agendaren lehen lerroan jarri du ingurumen eta gizarte borroka. Une honetan Txile Errepublikaren konstituzio berri bat idazteko prozesuan murgilduta dago, baina konstituzio hori aurkezten den arte ezingo da jakin ziur zer irismen izango duten gaur arte proposatu diren aldaketa politikoeak.

Merkatu geografikoari begiratuta, lehentasuna eman zaie zenbait eskualderi non metatzen diren ingurumen arloko erronka handienak eta non aurkitzen diren, orobat, sektorerako

aukerak. Nagusi dira zerrenda horretan **Valparaíso, Antofagasta eta Atacama** eskualdeak. Interesekotzat jotzen da baita ere **Biobío** eskualdea, erreferentea izaki berrikuntza arloan.

Nolanahi ere, kasu guztietan funtsezkoa izango da identifikatzea eskualde bakoitzeko **Eskualde Idazkaritza Ministeriala (SEREMI)**, berau delako eskualde bakoitzeko erreferentziazko ingurumen-erakunde eskuduna.

Aukera-ildo orokor batzuk zehaztuz, aipagarria da Txilek dituen beharrianak arlo hauetan: **araztegi eta tratamendu lantegietarako** ekipo-ondasunak, **uraren berrerabilpen eta birzirkulaziorako** teknologia berritzaileak eta, orobat, **gatzgabetze lantegietarako** ekipoak eta teknologia. Orobat antzematen da premiak dituela **hondakinen bilketa eta balorizazio arloan**, eta konponbide espezifikoak beharko direla **pneumatikoak eta obra-hondakinak** bezalako hondakinen kudeaketarako. Badago aukera-nitxo potentzial bat eraikuntza sektorean aplikatzeko moduko ekonomia zirkularreko konponbideetarako.

Erakunde eta banku multilateralekin lotutako proiektuak ere aukera garbiak dira, baina kasu gehienetan beharrezkoa izango da **tokiko aliantzak lortzea** edo bestelako aliantzak egitea agente estrategikoekin herrialdera sartu ahal izateko.

Laburtuz, Txilen badaude aukerak sektoreko enpresentzat, baina kontu handiz aztertu beharko dira **bakoitzaren jarduera-sektorearen berezitasunak**, eta gero ongi zehaztu beharko dira potentzial handiena duten eskualdeak, kasuan kasuko sarbide-estrategia bat definitzeko.



Alameda Urquijo, 36 5ª Planta Edificio Plaza Bizkaia
48011 Bilbao info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60